



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 13a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Sinboloei buruzko Legea berrezartzeari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (3. or.).
- Galdera, iragan astelehenean Eledunen Batzarrak onetsitako adierazpen instituzionala dela-eta –monarkia-ri edo errepublikari buruzko erreferendum lotesle bat egitearen aldekoa, zeinak Geroa Bairen babesia izan baitzuen– Nafarroako Gobernuak daukan iritzinari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Erregeek Nafarroara egindako bisitari eta monarkiaren eta errepublikaren arteko erreferendum lotesle bat egiteari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Iruñeko San Frantzisko eskoletako zuntz optiko bidezko kableatuaren egoerari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (5. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak Arartekoaren txostena aintzat hartuko duen eta Tuterako Compañía de María ikastetxean ratioak handituko dituen. Javier García Jiménez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gazteriari buruzko II. Foru Planaren (2017-2019) eta Gazteriari buruzko 2017-2020 aldirako Foru Estrategiaren alderdi berritzailei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko funtzionarioen soldata igotzeari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua dela-eta Gobernu eta polizia-sindikatuak izaten ari diren negoziazioari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (7. or.).
- Galdera, pneumokokoaren txertoa egun jaso gabeko beste patologia batzuetara zabaltzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen negoziazioa zertan den jakitekoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Buenos Airesen Nafarroako Gobernuaren stand bat jartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroan bidaiariak eta salgaiak abiadura handiko trenaren bidez garraiatzeko dagoen eskariari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenengo faseko handitze-proiektuko obrak egiteko epeei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (9. or.).
- Galdera, NUPeko errektoreak, hitzarmen partikularren bidezko lankidetzaren harremanak ezartzea eskaintze aldera, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetara egindako bisitei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (10. or.).
- Galdera, nafar zeliakoen aparteko elikadura-gastuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, 2012ko amnistia fiskala Konstituzioaren kontrakoa dela deklaratzeko duen Konstituzio Auzitegiaren epaiari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako toki entitateei haur hezkuntzako ikastetxeak eraiki, handitu eta egokitzeko diru-laguntzak emateko deialdiari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean 2006tik 2016ra bitarte izandako ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskala dela-eta azterlan bat egiteari buruzkoa. Laura Pérez Ruano andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka Konstituzio Auzitegian jarritako errekursoak kentze aldera Gobernu zentralarekiko negoziazioei buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Geroa Baik Iruñeko Udalean ikurrina jartzearen alde bozkatzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko etorkizuneko eremu ureztagarrian kokatutako Erriberako herri-lurren titulartasuna dela-eta dagoen gatazka juridikoari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira Landa Garapeneko, Ingu-rumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzkoa. Idatzizko galdera bihurtzea (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Sinboloei buruzko Legea berrezartzeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Sinboloei buruzko Legea berrezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ekainaren 3ko manifestazioan milaka eta milaka nafarrek eskatu zuten Sinboloei buruzko Lege indargabetua berrezartzea. Horien eskaria aintzat hartuko al duzu?

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, iragan astelehenean Eledunen Batzarrak onetsitako adierazpen instituzionala dela-eta –monarkiari edo errepublikari buruzko erreferendum lotesle bat egitearen aldekoa, zeinak Geroa Bairen babesa izan baitzuen– Nafarroako Gobernuak daukan iritzari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, iragan astelehenean Eledunen Batzarrak onetsitako adierazpen instituzionala dela-eta –monarkiari edo errepublikari buruzko erreferendum lotesle bat

egitearen aldekoa, zeinak Geroa Bairen babesa izan baitzuen– Nafarroako Gobernuak daukan iritzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure alderdiak --Geroa Bai-- monarkiari edo errepublikari buruzko erreferendum lotesle baten alde agertu zen iragan astelehenean --ekainak 5-- onetsitako adierazpen instituzionalean. Zein da zure iritzia?

Iruñean, 2017ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Erregeek Nafarroara egindako bisitari eta monarkiaren eta errepublikaren arteko erreferendum lotesle bat egiteari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Erregeek Nafarroara egindako bisitari eta monarkiaren eta errepublikaren arteko erreferendum lotesle bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zure ustez, koherentea al da Erregeen bisita batera joatea eta zure alderdiak, aldi berean, monarkiaren eta errepublikaren artean aukeratzeko erreferendum lotesle bat egitearen aldeko botoa ematea?

Iruñean, 2017ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Iruñeko San Frantzisko eskoletako zuntz optiko bidezko kableatuaren egoerari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko San Frantzisko eskoletako zuntz optiko bidezko kableatuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zertan da Iruñeko San Frantzisko eskoletako zuntz optikoaren bidezko kableatua? izan ere, Nafarroako Parlamentua Europako 1815 Ebazpenari atxiki zitzaion 2014ko irailaren 8an, eta 2016ko otsailaren 16an guraso-elkartearekin egindako lan-bilkura batean berriro eskatu zen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak Arartekoaren txostena aintzat hartuko duen eta Tuterako Compañía de María ikastetxean ratioak handituko dituen.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak Arartekoaren txostena aintzat hartuko duen eta Tuterako Compañía de María ikastetxean ratioak handituko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Maria Solana andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kasu eginen al diozu Nafarroako Arartekoaren txostenari eta handitu eginen al dituzu Compañía de María ikastetxeko ratioak halako moduan non ikasposturik gabe gelditu diren hurrek tokia izanen baitute?

Iruñean, 2017ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Gazteriari buruzko II. Foru Planaren (2017-2019) eta Gazteriari buruzko 2017-2020 aldirako Foru Estrategiaren alderdi berritzailei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gazteriari buruzko II. Foru Planaren (2017-2019) eta Gazteriari buruzko 2017-2020 aldirako Foru Estrategiaren alderdi berritzailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak ekainaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren prentsaurrekoaren ondoren atera zuen prentsa-oharraren bidez iragarri zuen Nafarroako Gazteriari buruzko II. Foru Plana (2017-2019) eta Gazteriari buruzko 2017-2020 aldirako Foru Estrategia onetsi dituela, zeinetan jasotzen baitira populazio gazteari zuzendutako politikak, ardatz dutenak gazteen emantzipazioa sustatzea, bizimodu osasungarri bat gara dezaten erraztea, gazteen parte-hartzea bultzatzea eta gazteak erabat gizarteratzen laguntzea.

Nafarroako Gobernuaren ustez, dokumentu horietako zer alderdi dira berritzaileak?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an.

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroako Gobernuko funtzionarioen soldata igotzeari buruzkoa.

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko funtzionarioen soldata igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Inma Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariatzako, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako kontseilariak ekainaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan % 1eko igoera onetsi da Estatuaren zerbitzuko funtzionarioentzat. Nafarroako Gobernuak iragarri zuen bere funtzionarioei ere aplikatuko ziela igoera hori baldin eta Estatuak beste horrenbeste egiten bazuen.

Nafarroako Gobernuak zer epe aurreikusi du igoera hori egiteko?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua dela-eta Gobernua eta polizia-sindikatuak izaten ari diren negoziazioari buruzkoa.

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua dela-eta Gobernua eta polizia-sindikatuak izaten ari diren negoziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTU5

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Inma Jurío

Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Heldu den ekainaren 30ean bukatuko da Legebiltzarrean izapidetzen ari den Nafarroako Poliziei buruzko Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea.

Fruiturik ematen ari al da talde parlamentarioek epearen barruan zuzenketak aurkeztu ahal izatea errazte aldera Gobernua eta sindikatuak egiten ari diren negoziazioa?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

Galdera, pneumokokoaren txertoa egun jaso gabeko beste patologia batzuetara zabaltzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, pneumokokoaren txertoa egun jaso gabeko beste patologia batzuetara zabaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak ba al du pneumokokoaren txertoa egun jaso gabeko beste patologia batzuetara zabaltzeko asmorik?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen negoziazioa zertan den jakitekoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen negoziazioa zertan den jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen sindikatuekiko negoziazioa?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Buenos Airesen Nafarroako Gobernuaren stand bat jartzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Buenos Airesen Nafarroako Gobernuaren stand bat jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak zergatik babesten du, Nafarroako Gobernuaren stand bat jarrita, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duen ekitaldi bat Buenos Airesen?

Corellan, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroan bidaiariak eta salgaiak abiadura handiko trenaren bidez garraiatzeko dagoen eskariari buruzkoa.

RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan bidaiariak eta salgaiak abiadura handiko trenaren bidez garraiatzeko dagoen eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroan zer eskari dago abiadura handiko trenaren bidez bidaiariak garraiatzeko eta beren salgaiak garraiatzeko modua aldatzeko interesa duten enpresei dagokienez?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenengo faseko handitze-proiektuko obrak egiteko epeei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen lehenengo faseko handitze-proiektuko obrak egiteko epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko,

Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Badakigu Nafarroako Ubidearen lehenengo fasea handitzeko obra egiteko epeak atzerapenarekin betetzen ari direla.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren aldetiko administrazio-blokeoaz hitz egin daiteke, obrek aurrera jarraitzeko baimenez ari garela.

Elizalde andreak maiatzaren 16an Parlamentuan egindako agerraldian azkartze-plan bat aipatu zuen, eta epe batzuk betetzeko konpromisoa hartu zuen.

Zertan da plan hori? Zertan dira obra egiteko epeak?

Kontseilariak agerraldi hartan hitz emandako ureztatze-epeak beteko dira?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, NUPeko errektoreak, hitzarmen partikularren bidezko lankidetzaharremanak ezartzea eskaintze aldera, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetara egindako bisitei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, NUPeko errektoreak, hitzarmen partikularren bidezko lankidetzaharremanak ezartzea eskaintze aldera, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetara egindako bisitei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

NUPeko errektoreak kargua hartzean egin zuen lehenengo gauzetako bat izan zen bisitan joatea Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe guztietara, hitzarmen partikularren bidezko lankidetzaharremanak ezartzea eskaintzeko. Hitzarmen horiek, zenbait kasutan, orain dela urtebete baino gehiago idatzi ziren bi hezkuntzerakundeen oniritziarekin.

Nafarroako Gobernuak ba al du horren berri? Zein da egoera horren norainokoa? Zergatik ez dira sinatu hitzarmenak?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, nafar zeliakoen aparteko elikadura-gastuei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, nafar zeliakoen aparteko elikadura-gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, 30.000 euroko partida bat aski al da Nafarroako zeliako guztien aparteko elikadura-gastuei aurre egiteko?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, 2012ko amnistia fiskala Konstituzioaren kontrakoa dela deklaratzeko duen Konstituzio Auzitegiaren epaiari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko amnistia fiskala Konstituzioaren kontrakoa dela deklaratzeko duen Konstituzio Auzitegiaren epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernu Ogasuneko kontseilari Mikel Aranburu jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

2012ko amnistia fiskala Konstituzioaren kontrakoa dela deklaratzeko duen Konstituzio Auzitegiaren epaiak zer ondorio izanen ditu Nafarroan?

Iruñean, 2017ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako toki entitateei haur hezkuntzako ikastetxeak eraiki, handitu eta egokitzeko diru-laguntzak emateko deialdiari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako toki entitateei haur hezkuntzako ikastetxeak eraiki, handitu eta egokitzeko diru-laguntzak emateko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, ekainaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zure ustez, Nafarroako toki entitateei 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako ikastetxeak eraiki, handitu eta egokitzeko diru-laguntzak emateko deialdia onesten duen 463/2017 Ebazpenaren bidez toki entitateei erraztu egiten al zaie laguntza horiek jaso ahal izatea?

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean 2006tik 2016ra bitarte izandako ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskala dela-eta azterlan bat egiteari buruzkoa.

LAURA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Komunitatean 2006tik 2016ra bitarte izandako ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskala dela-eta azterlan bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak azterlan bat egin dadin agindu du –prezioa 15.000 €-koa izanen da–, Nafarroako Foru Komunitatean 2006tik 2016ra bitarte izandako ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskala direla eta.

Egia da Iruzur fiskalaren aurka 2016-2019 aldian borrokatzeko planak ezartzen duela Nafarroako ezkutuko ekonomiari buruzko ahal den azterlanik osatuena eduki behar dela ezkutuko ekonomia hori desagerrarazteko neurri eraginkorrrak hartuko badira. Eta egia da, orobat, zergadatuak Datuak Babesteari buruzko Legearen mende egotea eragozpen bat izan daitekeela, baldin eta azterlan hori ez bada Foru Ogasunean egitean.

Azterlan hori zergatik ez dute zuzenean egiten Ekonomia eta Ogasun Departamentuek edo, bestela, Tracasa enpresa publikoak, iruzur fiskalaren alorraren bidez?

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka Konstituzio Auzitegian jarritako errekurtsioak kentze aldera Gobernu zentralarekiko negoziazioei buruzkoa.

MARIA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maria Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka Konstituzio Auzitegian jarritako errekurtsioak kentze aldera Gobernu zentralarekiko negoziazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak heldu den ekainaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka Konstituzio Auzitegian jarritako errekurtsioak kentze aldera Gobernu zentralarekin daukazen negoziazioa zertan da? Nafarroako Gobernuak zer errekurtsio erretira daitekeela espero du?

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Geroa Baik Iruñeko Udalean ikurrina jartzearen alde bozkatzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Geroa Baik Iruñeko Udalean ikurrina jartzearen alde bozkatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak erantzun diezaion:

Zure alderdiak –Geroa Bai– Iruñeko Udalean ikurrina jartzearen alde bozkatzea babestuko duzu?

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Ubideko etorkizuneko eremu ureztagarrian kokatutako Erriberako herri-lurren titulartasuna dela-eta dagoen gatazka juridikoari buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Ubideko etorkizuneko eremu ureztagarrian kokatutako Erriberako herri-lurren titulartasuna dela-eta dagoen gatazka juridikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Asteburu honetan hedabideetan agertu da gatazka juridikoa dagoela Nafarroako Ubideko etorkizuneko eremu ureztagarrian kokatutako Erriberako herri-lurren titulartasuna dela-eta –batik bat, Cintruénigon, Murchanten, Cascanten eta Corellan–. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Gatazka hori orain sortu al da? Orain sortu ez bada, Nafarroako Gobernuak noiztik dauka egoera horren berri eta zer urrats egin dira harrezkero gatazka hori gainditzeko?

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

Galdera, Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki

Administrazioiko Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa zen, eta 2017ko maiataren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, oinarrizko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzkoa.

IDATZIZKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko idazkia ikusita, non eskatzen baitu idatzizko galdera bihurtzea Osoko Bilkuran erantzuteko aurkeztu zuen ahozko galdera, oinarrizko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzkoa, ERABAKI DA:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatuari jarraikiz:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela galdera idatzi bihurtu dela oinarrizko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzko ahozko galdera, zeina 2017ko urtarrilaren 24ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

